



monografikoa artisautza



kulturaren
euskal
kontseilua
consejo
vasco
de cultura



EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO ARTISAUTZA-
INDUSTRIEN AZTERKETA

(LABURPENA)

AURKIBIDEA

	Or.
AURKEZPENA	1
FITXA SINOPTIKOA	2
I. HELBURUAK	4
II. EGITURA ETA METODOLOGIA	5
III. EDUKI NAGUSIAK	8
1. Emaidza nagusien azterketa	8
1.1. Artisautzako enpresa sarea	8
1.2. Soldatapeko enplegua	8
1.3. Artisauaren profila	9
1.4. Artisautza-sektoreko trebakuntza	9
1.5. Artisau-produktua	9
1.6. Artisau-enpresen ekipamenduak eta instalazioak	11
1.7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak artisautza-sektorean	11
1.8. Artisautza-sektoreko asoziazionismoa	12
1.9. Artisautza-sektoreko etorkizuneko adierazleak	12
1.10. Profil lehiakorraren oinarritzko ezaugarriak	12
2. Hausnarketa estrategikoa	16
2.1. Artisautza-sektorearen AMIA azterketa	16
2.2. Etorkizunean orientatzeko funtsezko elementuak	18
2.3. Ekintza-plan transformatzailea	19
2.4. Sektorea etengabe aztertzeke ohar metodologikoak	21

AURKEZPENA

Hemen aurkezten den dokumentuak *Euskal Autonomia Erkidegoko Artisautza Industrien azterketaren* laburpena ematen du; Ikertalde Grupo Consultor enpresak egin zuen 2005ean.

Kulturaren Euskal Planaren barruan sortu dute proiektu hau, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatu du. EAEko artisautza-sektoreak 2004an zuen errealitatea aztertzea du helburu. Horretarako, EAEko hiru Lurralde Historikoak hartu ditu esparru geografiko gisa: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia.

Dokumentu osoa Kulturaren Euskal Behatokiaren bulegoetan kontsulta daiteke, Lakuan, edo helbide honetan eskatu: kulturabehatokia@ej-gv.es

FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
Azterketaren izenburua	Euskal Autonomia Erkidegoko artisautza industriren azterketa
Burutu duen erakundea	Ikertalde Grupo Consultor, S.A.
Orrialde-kopurua	119
Burutu zen urtea	2005
Inplikaturako sektorea(k)	Artisautza
Aurrekariak	Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenak
Helburuak	Artisautza-jardueraren ikuspegi orokorra ematea, sektore horretako enpresa-profila aztertzea, laburpen-diagnostiko bat egitea, eta etorkizunari egokitzeko plan baterako oinarriak finkatzea
METODOLOGIA	
Ikerketa-metodologia	<p>Kuantitatiboa: 277 artisauri egin zaie inkesta, eta hainbat informazio jaso dira haien profil pertsonal, profesional eta enpresarialeki buruz. Dokumentu honek bi eranskin ditu osagarri gisa: 277 informazio-fitxa dituen Artisauen Katalogoa eta ustiatzeko eta tratatzeko aplikazio informatiko bat</p> <p>Kualitatiboa: hainbat elkarrizketa egin zaizkie erakundeetako solaskideei eta sektoreko funtsezko informatzaileei, eta elkarrizketa sakona egin zaie interesgarritzat jo diren 23 artisauri; jarduera, proiektzioa, ibilbide profesionala eta abarri buruz galdetu zaie</p>
Parte-hartzea	Direktorio bat egin da, EAEko hiru foru-aldundietako artisauen erregistro ofizialen eta hain zehatzak ez diren beste hainbat informazio-iturriren bidez (elkarteak, argitaletxeak, administrazioa, etab.). Artisau izan daitezkeen 562 lagunek osatu dute taldea, eta 277 laguni egin zaie elkarrizketa: 33 Araban, 101 Bizkaian eta 143 Gipuzkoan. Analisiaren lagina osatzen dute horiek, eta Artisau Enpresen Katalogoa izena eman zaio proiekturako
Informazioaren ezaugarriak	<p>Adierazle-kopurua: 14</p> <p>Zenbait aldagairi buruzko datuak islatzen ditu azterketak; adibidez, aldagai hauei buruzkoak: enplegua, produktuak, ekipamendua eta instalazioak, merkaturatzearen ezaugarriak, kudeaketarako ekipamendu teknologikoa, trebakuntza-beharrak, etorkizuneko aukerak, asoziazionismoa, modalitate juridikoa eta jabegoa, jardueraren arabera sailkatuta, Lurralde Historikoa, neurria, lanaldi-mota, lan-harremana, sexua, adina, ikasketa-maila, familia-tradizioa eta dimentsioa. Artisautza-sektorearen errealitatearen ikuspegi xehatua ematen du horrek guztiak</p> <p>Datu-motak: azterketaren lehen zatirako, zentsukoa, eta bigarren zatirako, berriz, laginketa</p> <p>Iturriak: Elkarrizketak instituzioetako esatariekin eta sektoreko funtsezko informatzaileekin, inkestak artisauari, inkesta sakonak</p>

FITXA SINOPTIKOA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
Egitura	<p>Bereizitako informazio-ataletan egituratuta dago azterketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Artisautza jardueren ikuspegi orokorra: artisautzaren kontzeptua sakontzen du dimentsio kulturalaren eta produktiboaren arteko jarduera ekonomikoko sektore gisa eta lurraldeari errotutako elementu gisa. Sartutako oharren eta proposatutako ikuspuntuaren bidez, sektoreak Estatuan duen panorama erregulatzailerak garatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko kasua ardatz hartuta • Sektorearen enpresa profila: horren zifra handiak kokatzen ditu, eta enpresa eta enpleguen ezaugarriak ematen ditu, hainbat adierazle bidez. Sakon aztertzen du mikroenpresa-erretiratu lehiakorra, hainbat alderdi kontuan hartuta: balio-katea, produkzio-instalazioen antolakuntza eta kudeaketa, eta diseinua eta merkaturatzea • Hirugarren eta azken atalean, laborpen-diagnostikoa aurkezten da, eta etorkizunerako ekintza-planerako proposatutako oinarriak ezarri
Ikuspegia	<p>Informazioa aztertzea: Lagina osatzen duten artisauek egindako inkestren bidez lortutako informazioa aztertzen da analisian; informazio hori osatzeko administrazioko, erakundeetako, sektoreko eta abarreko beste zenbait iturri ere erabili dira</p> <p>AMIA azterketak sektorea etorkizunean orientatzeko funtsezko elementuak planteatzen ditu. Atal hauetan banatzen dira: Artisautzaren testuinguru soziala, Enpresa-merkatua binomioa, eskaera gisa, Artisautza-lurraldea ezkontza eta horiei lotutako aukerak, Trebakuntza-eskaintza eta Artisautza-enpresa</p>
	<p>Ekintza-ildoak:</p> <p>Ekintza-plan baterako egitura-oinarri gisa, hauek sortzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Artisautzaren Erakunde Arteko Foroa, hausnarketa eta ekintzarako gune (publiko-pribatu) gisa, honela banatuta: <ul style="list-style-type: none"> • Artisautza Mahaia (aldatzeko hausnarketaren oinarritzko agenda) • Batzorde Dinamizatzailea (Oinarritzko proiektua: Euskal Artisauren Labela, Ziurtagiri programa eta barneko eta kanpoko ekintza-programak)
	<p>Eranskinean sektorea etengabe aztertzeko zenbait ohar metodologiko proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldizkakoa (bi urtekoa eta 150 laguneko lagina, orientazio gisa) • Funtsezko segimendu-edukiak (identifikazio-datuak eta modalitate juridikoa, establezimenduaren ezaugarriak, jardueraren jabea, enplegua, merkaturatzearen ezaugarriak, kudeaketarako ekipamendu teknologikoa, etorkizuneko adierazleak, asoziazionismoa)
Baliabide bibliografikoak /webgrafikoak	Ez
EMAITZEN ZABALKUNDEA	
Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/ prozesua	Dokumentu osoa Kulturaren Euskal Behatokiaren bulegoetan kontsulta daiteke, Lakuan, edo helbide elektroniko honetan eskatu: kulturabehatokia@ej-gv.es

I. HELBURUAK

Ikerketaren **helburu nagusiak** dira artisautza-jardueraren ikuspegi orokorra ematea, sektoreko enpresa-profila aztertzea, laburpen-diagnostiko bat egitea eta etorkizunerako ekintza-plan baterako oinarriak finkatzea.

Artisautza-jardueraren ikuspegi orokorra ematea, sektoreko enpresa-profila aztertzea, laburpen-diagnostiko bat egitea eta etorkizunerako ekintza-plan baterako oinarriak finkatzea da helburua

II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Azterketak hiru atal ditu: lehena, artisautza-jardueraren ikuspegi orokorra da; bigarrena, sektoreko enpresa-profila; eta, hirugarrena, EAEn artisautza-jarduera garatzeko diagnostiko-laburpena eta ekintza-proposamenak, eta sektore hori osatzen duten eragileen proposamenak.

Lehen zatian, iturri dokumental sekundarioak berrikustearen bidez, artisautzaren kontzeptu eztabaidagarriari heltzen dio: industria kulturala edo jarduera ekonomikoa. Halaber, sakon aztertzen du sektoreko esparru erregulatzailea.

Artisautza-jardueraren testuingurua ematen du azterketak, eta hiru ikuspuntu hauetatik aztertzen ditu ezaugarri nagusiak:

1. Honela definitzen du artisaua: bere eskuekin eta eguneroko lanarekin, itxuraz erabilerarik ez duten objektuak eta formarik gabeko gaiak tresna erabilgarri edo funtzional bihurtzen dituztenak, edo apaingarri gisa edo era sinbolikoan erabil daitezkeen objektu bihurtzen dituztenak. Definizio horrek artisautzaren izaera bikoitza du — kulturala eta produktiboa—, oinarrizko bi elementu hauen bidez: artisauaren banakako esku-hartzea lan produktiboan, beste zenbait jarduera ekonomikorengandik desberdintzen duen faktore gisa; eta lanbidearen zentzu ekonomikoa, hori baitu bizibidea.
2. Artisautzaren eta herri-kulturaren arteko identifikazioa egiten du; batetik, lehen sektore ekonomikoaren bizibide tradizionalekin duen lotura historikoaren ondorio, eta, bestetik, globalizazio ekonomiko eta kulturaren homogeneizatzeko eraginaren aurrean duen erreakzioa, ohitura herrikoietara itzultzea, alegia. Hala ere, artisautza-jarduera tradizioetik haratago doa; produkzio-jarraibideak eta -moduak merkatuaren eskakizunei egokitu behar izan dizkie.
3. Artisautza-sektorearen zeharkakotasuna uzten du agerian: kultura eta artearekin erlazionatuta dago, baina baita lehen sektoreko beste zenbait jarduera industrialekin eta landa-turismoarekin eta turismo kulturala eta etnologikoarekin ere, izaera diferentzialaren eta tokiko tradizioarekin duen loturaren bidez.

Ikerketak artisautza-jardueraren lege-esparrurako hurbilketa bat egiten du, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta lurraldeetako arau-erreferentzien analisiaren bidez, eta sektorean arau-dibertsitate handia dagoela nabarmentzen du. Sektorea arautzen duen erakunde arduraduna da ezaugarri bereizgarri nagusia. EAEn, diputazioena

Lehen zatian, iturri dokumental sekundarioak berrikustearen bidez, artisautzaren kontzeptu eztabaidagarriari heltzen dio: industria kulturala edo jarduera ekonomikoa. Halaber, sakon aztertzen du sektoreko esparru erregulatzailea

da eskumen hori; Araban, Kultura Sailarena; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, sustapen ekonomikoari lotutako arloetan kudeatzen da eskumen hori. Horrek eragin nabarmena du erakundeek sektoreari buruz duten ikuspegian eta sektorean egiten duten antolamendu orokorrean. Bizkaian, artisautza-jardueraren dimentsio ekonomikoa nabarmentzen da, eta artisauen erregistroa hartzen da funtsezko lan-elementutzat; Araban, dimentsio kulturala da protagonista, eta, ondoren, erregistroa lan-ildoan sartzen da; azkenik, Gipuzkoan bi kasu horien arteko antolamendua egiten da.

Arau-dibertsitate hori alderdi bereizgarri hauetan islatzen da zehazkiago:

1. **Artisautza-jardueraren definizioa:** hiru lurraldeetan nabarmentzen da artisautza-jardueraren emaitza banakako produktua dela, eta eskuz gehiago jarduten dela makinekin baino. Dena den, Araban definizioz kanpo geratzen da kontsumo-ondasunen artisautza, industria eta nekazaritzaren eta zerbitzuen osagarria; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, kontuan hartzen da. Gainera, Bizkaian artisau-lantzat hartzen da ondasun artistikoen produktioa; ez, ordea, elikagaien kontsumorako ondasunak.

2. **Espezifikoki artisau-lantzat hartzen diren jarduera-motak:** Araban, artisautza tradizionala eta artisautza sortzailea edo artistikoa bereizten ditu Diputazioak. Gipuzkoan, berriz, lau kategoria ezarri dira; lehen aipatutako horiez gain, kontsumitzeko ondasunak ekoizten dituen artisautza eta horiei zerbitzua ematekoa daude. Bestalde, Bizkaian, Diputazioak ez du sailkapenik.

3. **Artisautza-enpresaren tamaina:** hiru lurraldeak bat datoz artisautza-enpresa, -industria edo -lantegia definitzean: nagusiki eskuzko jarduera duen unitate ekonomikoa. Hala ere, enpresa-mota horretarako arauak ezartzen duten langile-kopuruaren arabera zehazten dira baieztapen horren ñabardurak: Bizkaian eta Gipuzkoan ezinbestekoa da 'familiakoak ez diren' langile iraunkorren kopurua hamar baino handiagoa ez izatea, ikasle ikastunak kontuan hartu gabe; Araban, berriz, ez dago mugarik.

4. **Egiten den jarduerari dagozkion baldintzak:** lehen aipatutakoez gain, artisautza-jarduerarako ezinbestekoak diren beste zenbait baldintza daude, heterogeneoak hauek ere: Bizkaian eta Gipuzkoan nahitaezkoa da artisautza-enpresa lizentzia fiskalean alta emanda egotea eta aldizkako jarduera edo jarduera osagarri bat ez izatea. Gipuzkoan, horretaz gain, Artisautza Jardueren Katalogoan egon behar du jarduerak, baita Araban ere; dena den, enpresak fiskalki alta eman beharrik ez dauka kasu horretan.

5. **Sartutako erakunde-elementuak:** Araban nahiz Gipuzkoan Artisautza Kontseiluak sortu dituzte. Bizkaian, berriz, horrelakorik ez dute sortu oraindik.

Sektorea arautzen duen erakunde arduraduna da ezaugarri bereizgarri nagusia. EAEn, diputazioena da eskumen hori; Araban, Kultura Sailarena; eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, sustapen ekonomikoari lotutako arloetan kudeatzen da eskumen hori. Horrek eragin nabarmena du erakundeek sektoreari buruz duten ikuspegian eta sektorean egiten duten antolamendu orokorrean

6. Jarduera sustatzea: azkenik, arauen heterogeneotasuna sektorea sustatzeko politikara hedatzen da, nola planteamenduetan hala laguntzen dimentsio ekonomikoan.

Azterketaren bigarren zatian, elkarrizketatzea lortu den 277 enpresak emandako datuak aztertzen dira. Azterketa-lagina osatzen dute enpresa horiek, eta 562 enpresako direktorio batetik lortu dira. Horretarako egingandako galdera-sorta baten bidez eskatu da informazioa, eta 2004. urteari dagokio. Horri eta beste zenbait informazio-iturri sekundariori esker, sektoreko enpresa-profila egin da. Bi alderdi orokorretan egituratu dira datuak:

- 1. Artisautza-sektorearen zifrak:** Puntu honetan, sektoreari egiten zaion lehen hurbilketa ematen da. Horretarako, enpresen eta langileen ezaugarriak ematen dira, eta hainbat adierazle aztertzen dira (identifikatutako enpresa-kopurua, geografian eta sektorean duen banaketa, ezaugarri juridiko-enpresarialak, artisauaren profila, produktuak, ekipamenduak eta instalazioak, merkaturatze-kanalak, sektorean teknologiak sartzea, birziklatze profesionala, etorkizuneko adierazleak, asoziazionismoa).
- 2. Erretratu lehiakorraren oinarrizko ezaugarriak:** Aurreko atalean azaldutako sektore-testuingurutik abiatuta, artisautza-enpresen profil lehiakorraren azterketa sakona egiten du puntu honek. Horretarako, bereziki interesgarritzat jo diren 23 kasu aztertu dira, irizpide hauek kontuan hartuta: jarduera, proiektzioa, ibilbide profesionala, etab. Eskuratutako datuek artisautza-enpresen balio-katea deskribatzen dute xehetasunez, eta antolakuntza eta kudeaketa, instalazio produktiboak, diseinua eta produktuen merkaturatzea aztertuta.

Azterketaren azken zatiak, lehenik, AMIA azterketa bat aurkezten du, eta artisautza-sektorearen funtsezko ezaugarriak laburtuta erakusten dituen ezaugarriak identifikatzen ditu. Azterketa horren bidez, hausnarketa estrategiko bat egin da, eta ekintza-plan transformatzaile bat egiteko oinarriak ezarri ditu. Ekintza-plan horren helburua da merkatuan aldatzen ari diren egoerak —une horretakoak eta etorkizunekoak— sektoreari ahalik eta ondoen egokitzea.

Eranskinen atal bat dago azterketaren amaieran. Informazioa biltzeko erabili den galdera-sorta dago erantsita, eta sektorearen segimendua sistematikoki egiteko ohar metodologiko batzuk ere ematen dira.

Azterketaren bigarren zatian, elkarrizketatzea lortu den 277 enpresak emandako datuak aztertzen dira. Azterketa-lagina osatzen dute enpresa horiek, eta 562 enpresako direktorio batetik lortu dira.

Azterketaren azken zatiak, lehenik, AMIA azterketa bat aurkezten du, eta artisautza-sektorearen funtsezko ezaugarriak laburtuta erakusten dituen ezaugarriak identifikatzen ditu

III. EDUKI NAGUSIAK

1. EMAITZA NAGUSIEN AZTERKETA

Azterketaren bidez, artisautzak sektore ekonomiko gisa duen dimentsioa aztertzen da. Hala, gai hauek laburtzen dira azterketan: sektoreko enpresa-sareari buruzko azterketaren emaitzak, artisauaren profila, artisautzako enpresek sortutako enplegua, produktua eta merkaturatzea, ekipamendua eta instalazioak, sektorearen dimentsio teknologikoa, birziklatze profesionala, asoziazionismoa eta etorkizuneko adierazleak. Ondoren, artisau-tailerren lehiakortasunari buruzko ezaugarri nagusiak azaltzen ditu azterketak. Ezaugarri horiek zehazteko, jatorrizko laginetik ateratako praktika egokien kasu batzuk erabili dira. Bukatzeko, azterketan landutako gai erabakigarri batzuk berrikusten dira AMIA diagnostikoaren bidez, eta etorkizuneko jarduera-lerroak zehazten dira, hausnarketa estrategikoan oinarrituta.

1.1. Artisautzako enpresa-sarea

Artisautzako enpresa-sarera egindako hurbilketaren bidez, ikusten da sektorea oso atomizatua dagoela. Hala, bat edo bi langileko establezimenduak dira nagusi, eta mota horretakoa da sektoreak sortzen duen enpleguaren % 58. Datuak lurraldeka aztertuta, Bizkaia da proportzioan dimentsio handieneko enpresak dituen lurraldea (2,2 langile batez beste), eta ondoren Gipuzkoa eta Araba daude, ratio pixka bat txikiagoekin (1,7 eta 1,6 langile hurrenez hurren). Baina, artisautza-enpresak lurraldeka nola banatuta dauden aztertuz gero, hurrenkera hori aldatu egiten da. Hala, gehienak Gipuzkoan daude (% 52), ondorengo Bizkaia da (% 36) eta azkenekoa Araba (% 12). Bestalde, zurezko altzarigintza eta tresnagintza da artisautza-industrian zabalduena dagoena (% 13). Musika-tresnekin eta marmol, harri eta eskaiolarekin lotutako jarduerak, berriz, oso ordezkarriz txikia dute sektorean (% 1). Azkenik, artisautza-jarduera egiten duten tailerren alderdi juridiko-enpresarialeki dagokienez, azpimarratu behar da gutxi funtzionatzen dutela sozietate moduan, eta gehienak langile autonomoak direla. Horrez gain, aipatu behar da gizarte ekonomiarekin lotutako forma juridikorik ez dagoela, eta hauen gisako formula marjinalak erabiltzen direla: zaletasuna, hobbya, jardueraren bat egiten duten erretiratuak...

1.2. Soldatapeko enplegua

Artisautza-sektorean sortzen den enpleguaren % 47 soldatapeko enplegua da. Enplegu-mota horren gehiengoa lanaldi osokoa da (% 80), lan-harreman formalak nagusitzen dira (% 69k ohiko moduan egiten du

Artisautzako enpresa-sarera egindako hurbilketaren bidez, ikusten da sektorea oso atomizatua dagoela. Hala, bat edo bi langileko establezimenduak dira nagusi, eta mota horretakoa da sektoreak sortzen duen enpleguaren % 58

soldatapeko jarduera) eta, azkenik, soldatapeko langileen talde horretan, emakumeen presentzia handia dela nabarmendu behar da.

1.3. Artisauaren profila

Artisauaren profilak agerian uzten du jardueraren izaera maskulinoa. Hala, elkarrizketatutako artisautza-enpresetako titularren % 64 gizonezkoak ziren. Salbuespen gisa, sektore batzuetan emakumeak dira gehienak: adibidez, ehungintzan (% 82) eta zeramikan (% 60). Halaber, artisauen gehiengo heldua da (46 urte batez beste). Gehienak 35 eta 50 urte artekoak dira. Sektoreka aztertuz gero, artisau gazteenak bitxigintzan, zurezko altzari-gintzaren sektorean eta beiragintzan aritzen dira. Dena den, talde horretan ere inor ez da 40 urtetik beherakoa. Aipatutako batezbestekoaren gainetik daude musika-tresnak eta zurezko tresnak egiten dituztenak eta harria eta marmola lantzen dituztenak.

Bestalde, artisauen heziketa-maila azpimarratu behar da. Hala, artisauen % 44k ikasketa profesionalak edo unibertsitateko ikasketak ditu. Fenomeno hori are ohikoagoa da landare-zuntzekin, beirarekin eta zeramikarekin lotutako jardueretan. Azkenik, adierazgarria da familiako tradizioaren ezaugarriak zer eragin duen (artisauen % 20ri eragiten dio). Bestalde, artisauen % 31k ez du artisautza jarduera nagusitzat, diru-sarrerara ekonomikoen aldetik.

1.4. Artisautza-sektoreko trebakuntza

Artisautza-sektorean oso trebakuntza-praktika gutxi izan arren, enpresen % 37k horrelako jardueraren bat egin du noizbait. Hala, zeramikak, beiragintzak eta ehungintzak dute arlo horretako parte-hartze handiena. Marmola, harria eta eskaiola, metala eta larrua lantzen dituztenek eta zurezko tresnak egiten dituztenek, berriz, parte-hartze tasa txikiak dituzte. Artisauen % 32k, berriz, adierazten du ez duela inolako trebakuntza beharrik.

Geografikoki, Gipuzkoako artisauak hartzen dute parte gutxien trebakuntza-jardueretan. Hala, Gipuzkoako artisauak trebakuntza jasotzeko interes gutxi agertzen dute. Artisauen trebakuntza-behar nagusiak hiru arlo handitan banatzen dira: kudeaketa-tekniken arloko trebakuntza, merkataritza arloko trebakuntza eta lanbidearen gaineko trebakuntza teknikoak.

1.5. Artisau-produktua

Artisau-produktuen aniztasuna hain handia izanik, sektoreko enpresa-unitateen % 73 oinarrizko ekoizpen-lerro batean edo bitan kontzentratzen da.

Artisautza-sektorean oso trebakuntza-praktika gutxi izan arren, enpresen % 37k horrelako jardueraren bat egin du noizbait. Hala, zeramikak, beiragintzak eta ehungintzak dute arlo horretako parte-hartze handiena

ARTISAUTZAKO PRODUKTUEN ZERRENDA

Zurezko altzariak
Altzariak zaharberritu eta konpontzea, armairuak, liburutegiak, ontzitegiak, bankuak eta altzariak eta gainerako zurezko higigarriak lakatzea
Zurezko objektuak
Hainbat objektu egiten dira: neurgailuak, erlojuak, argizaiolak, esekitokiak
Landare-zuntzak
Koadernaketa, paketatzea, kaxak, ihizko besaulkiak, saskigintza, argazki-albumak
Zeramika
Esekitokiak, eskulekuak, garaikurrak, eskulturak, muralak, dekoratzeko piezak, euskal zeramika tradizionala
Harria, marmola eta eskaiola
Eraikin zaharrak zaharberritzea, harrizko miniaturak, tximiniak eta hileta-lanak
Beira
Ateak, ispiluak, beirateak, beira-tailua, hautsontziak, mahaiardikoak, lanparak, kopen tailua
Metala
Eskultura, bozelketa, forjaketa artitikoak, errementaritzak, burdin-hesiak, balkoiak, barandak, armak
Larrua
Poltsak, oinetakoak, abarkak, larrukiak, idazmahaiko artikulak, koadroak
Ehuna
Galtzerdiak, xalak, jertseak, txalekoak, eskularruak, haur-oinetakoak, mediak
Bitxigintza
Konponketak, eraztunak, zintzilarioak, belarritakoak, mahuka bikiak, eskumuturrekoak, eraztunak, zilarrezko diseinuak, harribitxiak kokatzea
Musika-tresnak
Albokak, panderoak, danbolinak, txirulak, dultzainak
Bestelakoak
Adarren tailua, lore naturalak, lore prentsatuak, postalak, bereizgailuak, oihalean eta zetan pintatzea, sarrailagintza, agendak...

Azken hiru urteetan egindako **berrikuntzei** dagokienez, artisau-tailerren erdiak baino gehiagok hobekuntzak egin dituzte. Hobekuntza gehienak produktuen diseinuarekin lotuta daude. Fenomeno hori nabarmenagoa izan da Bizkaian, baina larruaren, zurezko tresnagintzaren eta landare-zuntzen arloko jardueretan gutxiago nabaritu dira hobekuntza horiek.

Azken hiru urteetan egindako berrikuntzei dagokienez, artisau-tailerren erdiak baino gehiagok hobekuntzak egin dituzte. Hobekuntza gehienak produktuen diseinuarekin lotuta daude. Fenomeno hori nabarmenagoa izan da Bizkaian

Artisau-produktu ia guztiak salmenta zuzenaren bidez **merkaturatzen** dira. Hauek dira merkaturatze-bide nagusiak: bezeroak enkargua egitea eta azokak. Dena den, gero eta artisau-produktu gutxiago merkaturatzen dira azoken bidez. Zeharkako salmentaren (handizkariak, txikizkariak, komisio-hartzaileak...) eta esportazioen zifrak marjinalak dira. Merkataritzako tresna gutxi erabiltzen dira. Dena den, horien artean azpimarratu behar dira enpresa-txartela, produktuen katalogoa eta artisau-elkarte eta -taldeen web guneak. Halaber, publizitate-jarduera gutxi egiten dira. Gehienek azokak eta bilkura profesionalak erabiltzen dituzte horretarako edo, bestela, sektorekako gida eta katalogoetan agertzen dira. Beraz, esan daiteke artisautza-sektorearen merkataritza-egoerari dinamismoa falta zaiola eta bezeroarengana oso gutxi zuzentzen dela.

1.6. Artisau-enpresen ekipamenduak eta instalazioak

Artisau-enpresen ekipamendu eta instalazioei dagokienez, % 87k tailerra dauka. Tailerren batezbesteko neurria 89m²-koa izaten da. Hala ere, bitxigintzako eta musika-tresnagintzako lokalak txikiagoak dira. Artisauen % 28k salmenta-gunea du (bitxigintza, beiragintza eta musika-tresnen arloko tailer guztiak). Salmenta-gune horiek 41 m² izaten dituzte batez beste. Halaber, azpimarratu behar da artisau-enpresen % 12k etxebizitza duela tailerraren ondoan. Dena den, egoera hori ohikoagoa da ehungintzaren eta musika-tresnagintzaren kasuan.

Oro har, artisauak pozik daude ekoizpen-ekipamenduaren eta instalazioen dimentsioarekin eta egoerarekin. Hala ere, % 50ek uste du beharrezkoa dela inbertsioren bat egitea. Sektoreka aztertuta, ehungintzak, beiragintzak eta zurezko altzarigintzaren sektoreak dituzte ekipamendurik eguneratuenak. Larrugintzan, landare-zuntzen arloan eta zurezko tresnagintzan, berriz, ekipamenduak zaharragoak dira. Alde horretatik, Bizkaiko artisau-enpresak dira dinamikoena, ekipamendu modernoena dituztelako eta ekipamenduak berritzeko joera handiagoa dutelako.

1.7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak artisautza-sektorean

Ordenagailua artisauen ohiko lan-tresna bihurtzeak erakusten du IKTak artisautza-sektorean barneratu direla. Dena den, enpresa-arloko jardueretan (adibidez, kudeaketa eta diseinua) gutxiago erabiltzen da. Artisan-enpresen % 69k ordenagailua du eta kolektiboaren % 53k dio arlo profesionalan erabiltzen duela. Hauek dira informatizazio-tasa handienak dituzten sektoreak: musika-tresnagintza, landare-zuntzak, bitxigintza, beiragintza eta zurezko altzarigintza. Beste sektore hauek, berriz, horrelako ekipamendu gutxi dituzte: zurezko tresnagintza eta harri- eta larru-lanketa. Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoan dago ordenagailuarekin ekipatutako tailer kopuru txikiena, Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta. Hiru lurraldeetatik Bizkaian erabiltzen da gehien ordenagailua.

Oro har, artisauak pozik daude ekoizpen-ekipamenduaren eta instalazioen dimentsioarekin eta egoerarekin. Hala ere, % 50ek uste du beharrezkoa dela inbertsioren bat egitea

1.8. Artisautza-sektoreko asoziazionismoa

Sektoreko elkarte-jarduerari dagokionez, artisau-enpresen % 49k dio elkarte profesionalen batekoa dela. Joera hori ohikoagoa da bitxigintzaren (% 68) eta zeramikaren (% 51) arloan, eta, lurraldearen ikuspegitik, Bizkaian (% 57).

Elkarte gehienak tokikoak edo probintzia mailakoak izaten dira (% 64), ondoren autonomia erkidego mailakoak (% 29) eta gutxi dira estatukoak edo nazioartekoak. Lurraldeka, Gipuzkoako eta Bizkaiko artisauen profil asoziatibo probintzia mailako elkarteekin lotuta dago batez ere. Araban, berriz, autonomia erkidego mailakoak dira nagusi.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko artisauen % 51k dio ez dela sektoreko elkarte bateko partaide, batez ere, interesik ez duelako (% 53), elkarte horiek zerbitzu erakargarririk eskaintzen ez dutelako (% 22) eta elkarte horiek ezagutzen ez dituelako edo haiekin harremanik ez duelako (% 18). Hala eta guztiz ere, erdia baino gehiago prest daude sektoreko elkarteei buruzko informazioa jasotzeko eta beste artisau batzuekin harremanetan jartzeko.

1.9. Artisautza-sektoreko etorkizuneko adierazleak

Sektoreko enpresa-profilaren deskribapenarekin amaitzeko, esan behar da artisautzaren etorkizuneko adierazleen azterketak datu itxaropentsuak ematen dituela datozen bost urteetarako. Hala, artisau-enpresen % 90ek jarduerarekin jarraitzeko asmoa du. Enpresen % 8k, berriz, lanbidea uzteko asmoa agertu du. Joera hori nabarmenagoa da sektore jakin batzuetan (ehungintza, zurezko altzarigintza eta larrugintza) eta, lurraldearen ikuspegitik, Gipuzkoan.

Bestalde, % 7k ondorengotza aipatzen du lanbidearekin jarraitzeko modu gisa. Batez ere, Gipuzkoan nabaritzen da joera hori. Enpresa arloko etorkizuneko aukerei dagokienez, artisauen % 58k dio aukera horiei eutsiko diela (batez ere, musika-tresnagintzan, zeramikan eta metalaren eta larruaren lanketaren arloan), % 32k negozioa haztea aurreikusten du (batez ere, bitxigintzaren arloan) eta % 10ak dio murriztea aurreikusten duela (batez ere, beiragintzan, ehungintzan eta zurezko tresnagintzan aritzen direnak). Lurraldeka aztertuta, artisaurok baikorrenak Bizkaikoak dira (Bizkaiko artisauen % 37k jarduera haztea aurreikusten du). Gipuzkoarren aurreikuspenak, berriz, ez dira hain baikorrak, eta emaitza okerragoak espero dituzte (Gipuzkoako artisauen % 13k pentsatzen du hori).

1.10. Profil lehiakorraren oinarritzko ezaugarriak

Emoziozko osagaiak enpresa-izaeran duen eraginari buruzko hausnarketa du abiapuntu artisautza-lantegietako profil lehiakorraren oinarritzko ezaugarrien azterketak. Artisauentzat artisautza ez da jarduera ekonomiko hutsa; sor-

Hauek dira informatizazio-tasa handienak dituzten sektoreak: musika-tresnagintza, landare-zuntzak, bitxigintza, beiragintza eta zurezko altzarigintza. Beste sektore hauek, berriz, horrelako ekipamendu gutxi dituzte: zurezko tresnagintza eta harri-eta larru-lanketa

kuntza artistiko handia du jarduerak, eta hori oztopo izan daiteke hazteko eta garatzeko. Ondorioz, lehiakortasunari eragiten dio: artisautza-lantegiek ez dituzte erabiltzen enpresa-kudeaketako teknikak; artisautza-jarduera indibidualista denez, ez da kontuan hartzen merkatuaren pultsua, eta, beraz, ez dira planteatzen sektoreak aurrera egiteko ekintzak; espiritu indibidualista hori artisauen asoziazionismo txikian islatzen da, nahiz eta artisautza-teknikak besteekin partekatzeak abantaila ugari ekarri, eta produktuak hedatzen eta merkaturatzen lagundu.

Artisauak sailkatzeko bi mota daude; lehena, haien lanbidearen eta egiten duten produktuaren arabera, eta bigarrena, berriz, lantegiaren enpresa-planteamenduari dagokio:

1. Lanbidearen eta produktuaren arabera sailkapena:

- **Artisau tradizionalak:** beren produktua oso tradizionala da, eta geografikoki oso merkatu mugatua dute; ondorioz, oso ezagunak dira beren inguruan. Musika-tresnak eta makilak egiten dituzte.
- **Artisau artistikoak:** lehen mailako produktuak egiten dituzte merkatu oso espezializatuan, eta nazioartean ezagunak dira, kalitate handia dela eta. Metal-, beira-, paper- eta zeramika-sektorekoak dira, eta artistak eta erakundeak dira haien bezero nagusiak.
- **Artisau estandarrek edo mistoak:** ezaugarri artistikoak eta funtzionalak konbinatzen dituzte beren produktuetan; hori da, hain zuzen ere, beren erakargarritasuna. Zeramika, forjatzea, larrua, ehuna eta papera lantzen dituzte artisau horiek.

2. **Enpresa-planteamenduaren** arabera sailkapena:

- **Artisau profesionala:** egokitzen jotzen du bere lanbidearekin lortutako bizi-maila, eta ez du hedapen- eta ondorengotza-proiektu berriak egiteko asmorik; ondorioz, jarduera amaitu egingo da erretiratzen denean. Ikerketa eta teknika hobetzea dira bere jardueraren motorra.
- **Artisau enpresaria:** enpresa-irizpideak aplikatzen dituzten artisauei dagokie profil hori, hauen arabera: diseinuari balorazio handia ematea, artisautza-produktuak bereizteko elementu gisa, informazioaren teknologiak lanaren hainbat alderdiri aplikatzea (merkaturatzea, sektorea ezagutzea, lehia), enpresa-kudeaketaren teknikak bere jarduerari aplikatzea, ekipamendu produktiboak berritzea, merkaturatzea aukerak izateko uste osoa, kalitatezko produktu desberdinduan oinarrituta.

Artisau-enpresaren ezaugarri lehiakorrek sakonago aztertzeke, haren **balio-katea** osatzen duten hainbat maila gainbegiratu ditugu, baita lehiakortasunari dagozkien erreferentzia-ingurua ikusi ere. Ordena honetan, jardueraren barne-antolakuntza aztertzen da lehendabizi. Artisau gehienak autonomoak dira, baina merkataritza-

Artisautza-jarduera indibidualista denez, ez da kontuan hartzen merkatuaren pultsua, eta, beraz, ez dira planteatzen sektoreak aurrera egiteko ekintzak

sozietate gutxi batzuk ere badaude. Horien bazkideak hiru baino gutxiago izaten dira, eta horiek berak izaten dira jarduera egiten duten artisauak. JEZen alta emanda izaten dute gehienek, obligazio fiskalak betetzen dituzte eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen dute, Autonomoen Erregimen Berezian. Nabarmentzekoa da artisautzaren adar guztietan ageri den 'familia-laguntza'. Ezkonlagunak egiten du normalean: enpresaren kudeaketa- eta administrazio-lanetan laguntzen du. Ezinbestekoa da jarduerak bizirauteko, baina zaila da hark sortzen duen ezkutuko ekonomia baloratzea.

Euskal artisautzako **produktuek** maila altua daukate diseinuari eta funtzionalitateari dagokienez, nahiz eta sektore bakoitzeko produktu-sorta nahiko estandarizatuta egon, jarduerako zenbait adar izan ezik. Enkargu bidez egiten dira ekoizpen artistiko horiek, eta, beraz, pieza bakarrak dira (larrua, beira, brontzea, papera, forjatzea, zeramika). Hiru diseinu-mota daude:

1. **Diseinu propioa:** artisauak berak diseinatzen eta egiten du produktua bere ideietan, dokumentazio espezializatuan eta merkatuko joeretan oinarrituta.
2. **Diseinu partekatua:** enkarguak egiten direnean esaten zaio, bezeroak oinarritzko ideia ematen duenean eta artisauarekin batera azken diseinuan parte hartzen duenean.
3. **Diseinu ezarria:** askotan egiten da zaharberritze-lanetan eta antzinako elementuen kopiatan. Produktua egitean, bezeroak emandako eredia eta zehaztapenak bete behar ditu artisauak.

Teknologiak diseinuari aplikatzen zaizkion oso kasu gutxi daude, eta metodo tradizionala erabiltzen da gehiena; hots, artisauaren ideia paperean jarri eta azken diseinua izan arte orraztea. Ondoren, molde edo txantiloietara eramaten da, eta lehengaia prestatzen da han. Diseinuaren bilakaerari dagokionez, eguneratuta egoteko kezka dute artisauek, eta sektoreko aldizkariak argitaratzen dituzte eta sektoreko azokarik garrantzitsuenetan izaten dira. Hala, forjatzea, beira, zeramika eta ehuna dira punta-puntako jarduerak.

Oro har, zaharrak dira euskal artisauen lanerako instalazioak eta ekipamendua, baina ezin hobeki balio dute beren erabilerarako, eta egoera eta mantentze-lan ezin hobekak dituzte. Sektoreka egindako azterketa batek emaitza hauek ematen ditu:

- Papera, larrua, bitxiak, ehuna eta zeramika lantzen dituzten artisau-enpresek dituzte instalazio modernoak, eta, gehienetan, produktuak erosteko edota saltzeko leku eksklusiboa dute, lantegiaz gain. Aitzitik, forja eta brontzea lantzen duten artisauek hogeitaz baina gehiagoko lantegiak dituzte, baina besteak baino handiagoak dira eta egoera onean daude.

Nabarmentzekoa da artisautzaren adar guztietan ageri den 'familia-laguntza'. Ezkonlagunak egiten du normalean: enpresaren kudeaketa- eta administrazio-lanetan laguntzen du. Ezinbestekoa da jarduerak bizirauteko, baina zaila da hark sortzen duen ezkutuko ekonomia baloratzea

- Bitxigileen lana tresna txikietan oinarritzen da, eta makinaria gutxi erabiltzen dute, baina makineria modernoa.
- Metal-artisauak makina-erreminta erabiltzen dute jarduera egiteko eta, zaharra izan arren, ongi kontserbatuta dago eta ez du erabilgarritasuna galdu.
- Ekipamendurik modernoena zeramikaren sektorean dago. Makinaria zaharrena baina ongien kontserbatutakoarekin batera erabiltzen da.
- Aztertu diren gainerako sektoreek ia ez dute makinarik erabiltzen, esku-tresnak erabiltzen baitituzte (musika-tresnak, egurra, ehuna, papera eta landare-zuntzak, beira eta larrua).

Merkataritza-politika finkorik ez dago, eta azokek galdu egin dute produktuak merkaturatzeko baliabide gisa zuten balorea. Ondorioz, gaur egungo egoera gainditzeko irtenbideak bilatzeari ekin diote artisauak. Bestalde, saltzeko kanal nagusiak dira partikularrei zuzenean saltzea —lantegian, alboko dendan edo azokatan—, edo partikularrek, enpresek edo erakundeek egindako enkarguak. Zuzenean merkaturatzeko bideak gutxiago erabiltzen dira, eta saltokiak eta banatzaileak izaten dira.

Artisauak estilo desberdina dute, bezero fidelak dituzte eta ekoizpen gehiena enkarguen bidez egiten da; horrenbestez, lehiarik ez dago artisauen artean, baina bada beste era hauetan:

- Eskulan-ikastaro bat eginda merkatuari produktu merkeagoak eskaintzen dizkietenak; kalitate gutxiagoko materialekin egiten dituzte lanak, ezkutuko ekonomian.
- Lantegiak —batez ere metalak lantzen dituztenak—, ohiko merkatuetan gutxiago saltzen dutelako, beren jarduera forjarekin zuzenean lehiari dauden produktuak egitera bideratu dutenak.
- Sasiartisauak ugaritzea. Ekoizpen-kostu baxua duten herrialdeetatik inportatutako produktuak merkaturatzen dituzte, eta zuzenean eragiten diete larrua eta ehuna lantzen duten artisauei.

Artisauak nahiko kezkatuta daude, Administrazio Publikoak deitzen dituen lehiaketetarako titulazio ofizialak exijitzeko asmoa baitu. Baldintza horrek ez die uzten lehiatzen lanbidea maisu artisau batekin ikasi dutenei, eta garapen profesionala izateko aukerak mugatzen dizkiete.

Desberdintasunak daude artisauen **egoera ekonomiko-finantzarioan**. Batetik, profesional gisa sailkatutako gehienek hogeitau urte baino gehiago daramatzate jardueran, eta amortizatuta dituzte lokalak, makinak eta instalazioak. Ondorioz, ez daukate asmorik baliabide finantzarioak behar dituzten hedapen-proiektuetan

Teknologiak diseinuari aplikatzen zaizkion oso kasu gutxi daude, eta metodo tradizionala erabiltzen da gehiena; hots, artisauaren ideia paperean jarri eta azken diseinua izan arte orraztea. Ondoren, molde edo txantiloietara eramaten da, eta lehengaia prestatzen da han

sartzeko. Bestalde, artisau-enpresaburutzat jotzen diren zenbaitek banku bidez egin dituzte hobetzeko inbertsioak duela gutxi, eta ezin die proiektu berriei aurre egin, beren karga finantzarioak direla eta. Beste batzuk, berriz, baliabide propioekin ordaindu dituzte ekipamendu eta instalazioen berrikuntzak, eta ez dute beste inoren finantziatorik eskatu nahi; beraz, ez dute interesik nolabaiteko inbertsioa behar duten garapen-prozesuei ekiteko.

Kontrol ekonomiko-finantzarioari dagokionez, ia ez da kostuak kalkulatzeko eta aztertzeo teknikarik erabiltzen. Hala, produktuen prezioa modu informalean kentzen da, lehengaien kostua, erabiltzen diren materialak eta artisauak produktua egiten erabiltzen duen ordu-kopurua kontuan hartuta.

Azkenik, artisau gehienek badakite sektoreari **diru-laguntzak** ematen dizkiela tokiko, lurraldeko eta Estatuako erakundeek, beren aholkulariek ematen dien informazioari esker eta diputazioek egiten duten heda-pen-lanari esker. Diru-laguntza horiek jaso dituztenak pozik agertu dira, bai erakundeekin izan duten harremanarekin, bai izapideen azkartasunarekin.

2. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Azterketaren hirugarren eta azken zatian, AMIA azterketa bat egin da. Sektoreko gai kritikoak nabarmentzen ditu, eta ondoren egin den hausnarketa estrategikoaren abiapuntu dira.

2.1. Artisautza-sektorearen AMIA azterketa

Aurreko emaitzen analisia abiapuntu hartuta, AMIA azterketa bat egin da. Sektorearen funtsezko ezaugarriak identifikatu eta lau kategoriatan sailkatzen ditu. Hala, mehatxuei aurre egiteko ezarri behar diren estrategiak ikustea eta sektorearen testuinguruak ematen dituen aukerak aprobeztatzea ahalbidetzen du:

Ahultasunak:

- Kolektiboak dimentsio txikia du eta zatitua dago, eta horrek ez du uzten beste sektoreetarako balio duten lanplanteamenduak aplikatzen.
- Produktu, lan-egoera eta arau-erregulazioaren heterogeneotasunak zaildu egiten du partekatutako lanaren azterketak eta planteamenduak egitea.
- Desoreka dago lurraldeen artean; Bizkaia beste lurraldeak baino egoera hobean dago.
- Artisau gehienak helduak dira: herenak 50 urte baino gehiago ditu.

Merkataritza-politika finkorik ez dago, eta azokek galdu egin dute produktuak merkaturatzeko baliabide gisa zuten balorea

- Artisauen jarrera indibidualistak eta mikroenpresa izateak jarduera baldintzatzen du enpresa-alderdiari dagokionez.
- Produktuaren oinarriko merkaturatzeak zaildu egiten du beste zenbait merkatuetara hedatzea.
- 'Artisautza-produktuak' esaten zaien produktuen kalitate-maila askotarikoa da.
- Hezkuntza-eskaintza bere premia-tara behar adina ez egokitzea.

Mehatxuak:

- Produkzio-kostu baxua duten herrialdeetako produktu industrialen eta inportazioen lehia.
- Eskulangintzaren lan-intrusismoa eta tradizioz industrialak diren lantegiak 'artisautza-lantegi' bihurtzea; indargabetu egiten dute berezko artisautza-produktua.
- Artisautza-jarduera herri-kulturarekin identifikatzea; zaildu egiten du jarduera ekonomiko gisa garatzea eta aurrerapena izatea.
- Azokek artisautza-produktuak merkaturatzeko kanal gisa zuten balioa galtzea.
- Ordezko belaunaldia nahikoa ez izatea; sektorea pixkanaka galtzera bultzatzen du.
- Merkatuari eta haren eskakizunei ez egokitzea.

Indarguneak:

- Baldintza txarretan lan egitera ohituta dagoen talde baten sendotasuna du; halaber, konfiantza osoa du produktuaren balio desberdinarengan.
- Bikaintasunaren adibideak daude taldean, eta gainerakoentzako eredu izan daitezke.
- Egokitzeko gaitasun handia eta malgutasuna; horiek dira artisau-lana grinaz egiten duten erakunde txikien ezaugarriak.
- Ondasun etnografiko garrantzitsua, balio ekonomiko gisa aprobetxa daitekeena.
- 'Euskaltasuna'ren prestigioa, merkataritza-dimentsioko faktore bereizle gisa.
- Sektoreak ibilbide luzea du, egindako akatsei eta ongi egindako gauzei esker ikasteko aukera ematen duen ibilbidea.

Aukerak:

- Testuinguru sozial eta ekonomiko egokia, artisautza-produktuaren sentsibilizazioari eta ordezkatzeko dituen balioei dagokienez.

Artisau gehienek badakite sektoreari diru-laguntzak ematen dizkiela tokiko, lurraldeko eta Estatuko erakundeek, beren aholkulariek ematen dien informazioari esker eta diputazioek egiten duten hedapen-lanari esker

- Sinergiak kultura eta turismoko jarduerekin (balio ekonomikoa hazten ari zaien sektoretzat hartuta).
- Artisautza arte eta diseinuaren munduari lotutako sektore gisa kontzeptualizatzea.
- Sektorea profesionalizatzeko eremua eta zuzeneko eta zeharkako merkaturatze-kanalak hobetzeko marjina handia.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea.

2.2. Etorkizunean orientatzeko funtsezko elementuak

Sektorearen azterketa egin eta ekintza-plana garatu aurretik, nahitaezkoa da sektorearen etorkizuna orientatzeko funtsezkoak diren elementu batzuei buruz hausnartzea. Hala, mahaigaineratu den testuinguru sozialaren ezaugarri dira jarduera ekonomikoaren tertziarizazioa eta informazioaren eta ezagutzaren sistema bihurtzea; artisauaren zuzeneneko esku-hartzeak eragiten dion balio etikoak nabarmentzen du artisautza-produktua, produktu industrialaren despertsionalizazioaren aurrean.

Bestalde, protagonista dira produkzio-unitate txikiak, eta ez garai industrialaren ezaugarri izan ziren eskala handiko enpresak. Errealitate kontraesankorrez beteta dago gaur egungo gizartea, eta harmonian bizi dira elkarrekin; errealitate berri konplexuagoa sortu dute, eta artisautza-produktuak ezin hobeto hartu du lekua hor, bere dualtasunari esker: zaharra eta berria, modernoa eta tradizionala... Hitz batez, jardueran aurrera egin eta garatzeko aukera hau aprobetxatu behar du artisautza-sektoreak, eta esperientzia eta metatutako ezagutza erabilita erantzun behar berriei.

Artisautza-sektoreak aurre egin behar dion beste erronka bat da jardueraren izaera ekonomikoa onartzea, dimentsio artistikoa galdu gabe. Bere gain hartu behar du prozesu produktiboen kudeaketa, kostuak aztertzeke teknikak erabilita eta jardueraren administrazioa eraginkortasunez kontrolatuta, egungo merkatuaren eskakizunetara egokitu dadin eta aurrera egitea eta garatzea ahalbidetu dezan.

Gaur egun, jarduera turistikoak, ludikoak eta kulturalak garrantzia hartzen ari dira balio ekonomikoa sortzeko elementu gisa. Horien garapenari lagun diezaieke lurralde-artisautza binomioak; lehenengoa, produktu turistiko gisa, eta, bigarrena, merkataritza-bultzada gisa. Horregatik, beharrezkoa da baliabide hori kalitatearen ikuspuntutik kontu handiz optimizatzea.

Azkenik, hezkuntza-eskaintza artisautza-sektorearen benetako beharrei doitzeko erronkari egin nahi zaio aurre. Horren helburua da artisauen kualifikazioa hobetzea eta belaunaldi berriak sektorean sartzea erraztea, egungo merkatuaren lehia-eskakizunetara hobeto egokitutako planteamendu berriak sar ditzaten.

Aurreko emaitzen analisia abiapuntu hartuta, AMIA azterketa bat egin da. Sektorearen funtsezko ezaugarriak identifikatu eta lau kategoriatan sailkatzen ditu. Hala, mehatxuei aurre egiteko ezarri behar diren estrategiak ikustea eta sektorearen testuinguruak ematen dituen aukerak aprobetxatzea ahalbidetzen du

2.3. Ekintza-plan transformatzailea

Egindako hausnarketak kontuan hartuta, ekintza-plan transformatzaile batentzako oinarriak ezartzeko behar diren elementuak ditugu. Erakundeen arteko lankidetzak sustatu behar dute horiek, eta ekimen hauek egiteko tes-tuinguru espezifikoa sortzera bideratu: diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren planteamenduak eta ekintza erre-gulatzailea koordinatzea, arauak eta erakundeak homogeneizatzeko; artisautzari lotutako sektoreko beste zenbait arlo (turismoa, kultura, etab.) prozesu horretan inplikatzea eta sortutako sinergiak aprobetxatzea; sektoreko en-presak transformatzeko prozesuari ekitea, izen oneko artisauen eta lan-elkarteen parte-hartzeaz; eta, azkenik, etorkizuneko aukera hobeak bilatzea, esperientziak elkartrukatzearen bidez. Erakundeak elkartzeko gune izateaz gain, hausnarketarako eta ekintzarako foroak izan behar du horrek, eta bi elementu hauetan gauzatu:

1. Artisautza-mahaia: erakundeetako eta sektoreko eragileek elkarrekin hausnartzeko eta eztabaidatzeko lekua da, baina zeharkako sektoreen ekarpenak ere hartzen ditu. Osoko bilkuren eta/edo jardunaldi tekniko espezifikoen bidez jarduten du, eta ezarri behar diren transformazioak orientatzeko eta animatzeko ahol-kularitza-esparru izatea da haren zeregin nagusia, baita lan-agenda ezartzea, lehenetsiak esleitzea eta horiei ekiteko formula eta hartuko duen denbora zehaztea ere. Azkenik, oinarritzko lau ardatzetan egitura-tuta dago edukia, eta sektorearen erronka eta beharrei lotutako elkarriketa-arloak identifikatzen ditu:

- **1. ardatza. Sektorearen antolamendua: esparru erregulatzailea hobetzea**

Lurralde-aniztasuna eta esparru erregulatzailea amortizatzea

Esparru erregulatzailearen eraginkortasuna hobetzea: enpresa helburu bihurtzea

Beste zenbait sektoreekin zeharkakotasuna izateko beharra

- **2. ardatza. Enpresa-lehiakortasuna eta merkatuak**

Merkaturatzeko prozesua eta marketin kolektiboa hobetzea

Kudeaketa profesionalizatzea

Teknologiak sartzea

Artisautza-kolektiboaren etengabeko trebakuntza

Ordezko belaunaldiak

- **3. ardatza. Beste zenbait sektore eta arlo profesionalekin lankidetzan aritzea**

Kultura eta turismoa: artisautza lurraldeko aktibo gisa

Errealitate kontraesankorrez beteta dago gaur egungo gizartea, eta harmonian bizi dira elkarrekin; errealitate berri konplexuagoa sortu dute, eta artisautza-produktuak ezin hobeto hartu du lekua hor, bere dualtasunari esker: zaharra eta berria, modernoa eta tradizionala...

Hezkuntza: lanbidea, diseinua eta artearen artean zubiak eraikita

Diseinua, berrikuntza- eta kalitate-tresna gisa

- **4. ardatza. Kolektibo gisa kohesioa eta kontzientzia izatea**

Lankidetzaren formularen alde egitea

Kolektiboaren informazioa, hedapena eta sentsibilizazioa

- 2. **Batzorde Dinamizatzailea / Proiektu Faktoria:** proiektu jakinak gauzatzea da haren zeregin nagusia.

Proiektu horien bidez, aldatzeko, modernizatzeko, eraberritzeko eta merkatuaren lehia-erakizunetara egokitzeko ekimenak egin nahi dira. Horretarako, ezinbestekoa da sektorea atomizatzeko dakartzen zailtasunei aurre egitea eta 'enpresa kolektiboa' kontzeptua bere gain hartzea, taldeari eta norbanakoari laguntzeko elkarrekin jarduten duten artisauen federazio gisa. Proiektu hori gauzatzeko, beharrezkoak dira artisauen borondatezko atxikipena, kolektiboki ezarritako arauak onartzea eta errespetatzea, eta parte hartzen duten artisautza-enpresek gutxieneko profesionaltasun- eta kalitate-maila bat betetzea. Filosofia horren adierazpen operatiboa proiektu hauetan oinarritzen da:

- Oinarrizko proiektua. Euskal artisautzaren labela (euskal artisaua) + ziurtagiri programa (lehiakortasun hobekuntza)
- 1. proiektua: zeharka merkaturatzeko produktuen katalogoa
- 2. proiektua: 'Berogune' turistiko-kulturalei lotutako zeharkako merkaturatze-puntuen lurralde-sarea
- 3. proiektua: establezimendurik gabe merkaturatzeko erak
- 4. proiektua: azoka-sarea / azokak
- 5. proiektua: artisautza-enpresako laguntza teknikoaren eta aldaketa-tutoretzaren programak
- 6. proiektua: birziklatze profesionalaren urteko plana (HOBETUZ)
- 7. proiektua: Ondorengotza tutorizatua
- 8. proiektua: 'Arte-eskolatik artisautza-lantegira'
- 9. proiektua: Euskal artisautzaren urteko sariketa
- 10. proiektua: Artisautza-jardueren katalogoa
- 11. proiektua: Atzerrian artisautza-trebakuntza jasotzeko bekak eta laguntzak

Artisautza-mahaia:
erakundeetako eta sektoreko
eragileek elkarrekin
hausnartzeko eta eztabaidatzeko
lekua da, baina zeharkako
sektoreen ekarpenak ere hartzen
ditu

2.4. Sektorea etengabe aztertze ohar metodologikoak

Azterketak eranskin bat du, eta, galdera-sortaz gain, sektorea etengabe aztertze ohar metodologiko batzuk ditu. Sektorearen segimendua sistematikoki egitea ahalbidetzen du; horretarako, beste bi lan-lerro proposatzen dira:

- **Hiru foru-aldundietako artisautza-erregistroen segimendu-dinamika** artisautza-kolektiboa identifikatzea zaila da, eta, beraz, iturri egonkorak, ofizialak eta sistematikoak dira diputazioetako erregistroak, artisautza-enpresen kopuruaren segimendua egiteko. Dena den, komeni da horien alta- eta baja-sistema hobetzea.
- **Sektorearen segimenduaren inkesta-panela:** aldizka artisautza-enpresen lagin egonkor bati inkesta bat egitea, eta, halaber, aldizka berrikuntza- edo ordezkatzeko irizpide bat sartzea. Azterketak iradokitzen du segimendu-eragiketa gutxi gorabehera 150 enpresako laginean oinarritzea eta bi urtetik behin egitea, eta eduki edo aldagai interesgarri hauek sartzea:
 - ◆ Lantegiaren identifikazio-datuak eta jarduera egiteko zer modalitate juridiko erabiltzen duen
 - ◆ Establezimenduaren ezaugarriak: lantegia, saltzeko aretoa eta alboko etxebizitza dituen ala ez
 - ◆ Jardueraren jabea: adina, sexua, trebakuntzak, jarduera-mota (nagusia, osagarria)
 - ◆ Enplegua
 - ◆ Merkaturatzearen ezaugarriak
 - ◆ Kudeaketarako ekipamendu teknologikoa
 - ◆ Etorkizuneko adierazleak (enpresa-itzaropenak)
 - ◆ Asoziazionismoa

Batzorde Dinamizatzailea / Proiektu Faktoria: proiektu jakinak gauzatzea da haren zeregin nagusia. Proiektu horien bidez, aldatzeko, modernizatzeko, eraberritzeko eta merkatuaren lehia-eskakizunetara egokitzeko ekimenak egin nahi dira

Azterketak eranskin bat du, eta, galdera-sortaz gain, sektorea etengabe aztertze ohar metodologiko batzuk ditu. Sektorearen segimendua sistematikoki egitea ahalbidetzen du; horretarako, beste bi lan-lerro proposatzen dira: Hiru foru-aldundietako artisautza-erregistroen segimendu-dinamika eta Sektorearen segimenduaren inkesta-panela



kulturabehatokia@ej-gv.es